

ARIKETAK

GRAMATIKA

1 Gramatika ataleko artikulua irakurri eta gero (16. or.), saia saitez ondorengo hutsuneak betetzen.

Bilera (1) _____ izan zen, ia lau ordukoa; eta pazientzia (2) _____ behar izan zuen alde egiteko tentazioan ez erortzeko. Gelaren barruan bero (3) _____ egiten zuen;agian, horregatik, edo, akaso, oso urduri zegoelako, Marisaren ile (4) _____ busti-busti eginda zegoen: izerditan blai. Urte (5) _____ soldata (6) _____ jaso ondoren, azkenean lortu zuen: diru (7) _____ irabaziko zuen handik aurrera.

Ordurarte, neke (8) _____ jasan behar izan zituen bere lanean, eta egur (9) _____ jaso. Hutsegite (10) _____ eginda ere, sekulakoak entzuten zituen beti; azken batean, ulertzekoa zen, izan ere, erantzukizun (11) _____ lanpostua betetzen zuen.

Baina, norbere buruarengan konfidantza (12) _____ izanez gero, ez dago aldapa (13) _____. Marisak atzerriko beste enpresa batean egonaldi (14) _____ egitea erabaki zuen, eta bertan (15) _____ ikasi. Emaitzak epe (16) _____ iritsi ziren. Ez dago ogirik neke gaberik.

1
A handia
B zabala
C luzea

2
A franko
B handia
C asko

3
A asko
B ugari
C handia

4
A luzea
B handia
C piloa

5
A osoetan
B askotan
C multzoan

6
A gutxi
B laburra
C txikia

7
A handia
B asko
C kristona

8
A handiak
B osoak
C luzeak

9
A multzoa
B handia
C asko

10
A motela
B leuna
C txikia

11
A handiko
B askoko
C ugariko

12
A asko
B handia
C anitz

13
A gogorrik
B askorik
C lasairik

14
A handia
B ugari
C luzea

15
A asko
B luze
C ugari

16
A gutxira
B laburrera
C txikira

- ② Azpimarra itzazu 30/92 Legearen zati honetan dauden terminoak eta fraseologiako unitateak.

H
I
T
Z
E
Z

H
I
T
Z

Artículo 59. Práctica de la notificación

1. Las notificaciones se practicarán por cualquier medio que permita tener constancia de la recepción por el interesado o su representante, así como la fecha, la identidad y el contenido del acto notificado.

La acreditación de la notificación efectuada se incorporará al expediente.

2. En los procedimientos iniciados a solicitud del interesado, la notificación se practicará en el lugar que éste haya señalado a tal efecto en la solicitud. Cuando ello no fuera posible, en cualquier lugar adecuado a tal fin, y por cualquier medio conforme a lo dispuesto en el apartado primero de este artículo.

Cuando la notificación se practique en el domicilio del interesado, de no hallarse presente éste en el momento de entregarse la notificación, podrá hacerse cargo de la misma cualquier persona que se encuentre en el domicilio y haga constar su identidad.

- ③ Terminoak eta fraseologiako unitateak lokalizatu eta euskarazko ordainak topatu ondoren, lanaren zati bat aurreratuta daukazu. Ausartuko al zinateke testu-zati hori euskaraz ematen?



- 4 19 orriko artikuluan horrelako zerbait esan digu egileak: "nori idazten diogun, modu bateko edo besteko euskara batua erabili beharko dugu". Hori kontuan izanik, bete itzazu ondorengo testu-zatiak zure hizkerari egokitzen zaion hitzarekin. a) eta b) aukeretatik kanpo dagoen beste hitzen bat erabiltzen baduzu, *Besterik* izeneko atalean adierazi.

(1) Alkateak honako hau JAKINARAZTEN DIZUE:

(1)....., feria egunean, kotxe (2)..... denez eta lekua txikia denez, jendea (3)..... ibiltzen da, eta udaltzainak (4)..... beharrekoa (5).....ezinik.

Aurrerantzean, feria, (6)....., plazan egingo da; kotxeak, (7)....., plazan aparkatu (8), proba-lekuan aparkatuko dira.

Alkatea

1
A Asteazkenero
B Eguaztenero
C Besterik:

2
A larregi batzen
B gehiegi biltzen
C Besterik:

3
A larri
B ortega
C Besterik:

4
A jagon
B zaindu
C Besterik:

5
A zaindu
B jagon
C Besterik:

6
A betiko legez
B beti bezala
C Besterik:

7
A ordea
B ostera
C Besterik:

8
A beharrean
B barik
C Besterik:

(1) Argiro idazteko proposamenak eta ariketak (HAEE, 1997) liburutik hartuta.

S O L U Z I O A K

GRAMATIKA

1 Ariketa

1C 2B 3C 4A 5B 6C 7B 8A 9C 10C 11A 12B 13A 14C 15A 16B

Bilera **LUZEA** izan zen, ia lau ordukoa; eta pazientzia **HANDIA** behar izan zuen alde egiteko tentazioan ez erortzeko. Gelaren barruan bero **HANDIA** egiten zuen; agian, horregatik, edo, akaso, oso urduri zegoelako, Marisaren ile **LUZEA** busti-busti eginda zegoen; izerditan blai. Urte **ASKOTAN** soldata **TXIKIA** jaso ondoren, azkenean lortu zuen: diru **ASKO** irabaziko luke handik aurrera. Ordurarte, neke **HANDIAK** jasan behar izan zituen bere lanean, eta egur **ASKO** jaso. Hutsegite **TXIKIA** eginda ere, sekulakoak entzuten zituen beti; azken batean, ulertzekoa zen, izan ere, erantzukizun **HANDIKO** lanpostua betetzen zuen. Baina, norbere buruarengan konfidantza **HANDIA** izanez gero, ez dago aldapa **GOGORRIK**. Marisak atzerriko beste enpresa batean egonaldi **LUZEA** egitea erabaki zuen, eta bertan **ASKO** ikasi. Eraitzak epe **LABURRERA** iritsi ziren. Ez dago agirik neke gaberik.

HITZEZ HITZ

2 Ariketa

Azpimarratutakoak terminoak dira.

Artículo 59. Práctica de la notificación

1. Las notificaciones se practicarán por cualquier medio que permita tener constancia de la recepción por el interesado o su representante, así como la fecha, la identidad y el contenido del acto notificado.

La acreditación de la notificación efectuada se incorporará al expediente.

2. En los procedimientos iniciados a solicitud del interesado, la notificación se practicará en el lugar que éste haya señalado a tal efecto en la solicitud. Cuando ello no fuera posible, en cualquier lugar adecuado a tal fin, y por cualquier medio conforme a lo dispuesto en el apartado primero de este artículo.

Cuando la notificación se practique en el domicilio del interesado, de no hallarse presente éste en el momento de entregarse la notificación, podrá hacerse cargo de la misma cualquier persona que se encuentre en el domicilio y haga constar su identidad.

Fraseologiako unitateak:

practicar una notificación; efectuar una notificación; iniciar un procedimiento

3 Ariketa

Begira gure itzulpena:

59. Nola jakinarazi

1. Jakinarazpenak egiterakoan zainduko dira, batetik, interesdunak edo bere ordezkarjak hartu ote duten jakiteko modurik izango dela, eta, bestetik, jakinarazpenean adierazten dela zein den egintza, noizkoa den eta zer dioen.

Jakinarazpenaren egiaztagiria expedienteari atxikiko zaio.

2. Interesdunaren eskariz hasitako jardunbideetan, eskabidean jarri duen tokira bidaliko zaio jakinarazpena, eta horra bidaltzerik ez badago, horretarako egoki den beste tokiren bat aukeratuko da; beti ere, atal honetako lehen idazatian ezarritakoa betetzen dela ziurtatzen duen bidea aukeratuko da.

Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin, eta interesduna ez badago, han dagoen edozeinek har dezake, nor den adierazten badu.

Fraseologiako unitateak: jakinarazpenak egin; jardunbidea hasi

LANEAN EUSKARAZ

4 Ariketa

Ariketa honek ez du erantzun jakinik; izan ere, zuetariko bakoitzak aukeratuko zuen zeuen tokiko euskarari dagozkion hitzak eta esamoldeak.